

Gaztelaniazko *diferente* izenondoa
ez da beti desberdintasuna
adierazteko erabiltzen
(eta *distinto*, *diverso* sinonimoak ere ez).



Gaztelaniazko *diferente* izenondoaren
hiru erabilera bereizten dira,
adjektiboaren kokagunea zein den
eta izen-sintagma nolakoa den.



A) Kokagune normala (izenaren atzetik):

1. *Son lenguas diferentes.*

B) Kokagune berezia (izenaren aurretik):

1. Izen-sintagma mugagabea: *diferentes lenguas*

2. Izen-sintagma mugatua: *las diferentes lenguas*



Laukitxoak ez du adierazten halakoetan *desberdin* izenondoa erabiltzea gaizki dagoela, baizik zalantzazkoa edo desegokia dela.

Euskaraz honela emango ditugu gaztelaniazko esaldi hauek:

- gazt. Son lenguas diferentes.
eu. *Hizkuntza desberdinak dira.*
- gazt. Domina diferentes lenguas.
eu. *Hainbat hizkuntza dakizki.*
(#hizkuntza desberdinak dakizki.)
- gazt. Domina las diferentes lenguas de Francia
eu. *Frantziako hizkuntzak dakizki.*
(#Frantziako hizkuntza desberdinak dakizki.)



Son lenguas diferentes

Kategoria bertsuko adibide gehiago:

- Etxe *desberdinak* eraiki dituzte.
- Herri *ezberdinetan* bizi dira.

Esaldi horietan honako hau adierazi nahi da:

- Eraiki dituzten etxeak, elkarren artean edo besterekiko, ez dira berdinak, tamainaz, kolorez... Eta herri horiek, elkarren artean edo besterekiko, ez dira berdinak, giroari, biztanleen izaerari... dagokionez.



(Oharra: *Hiztegi Batuak* ‘desberdin’ eta ‘ezberdin’ hobesten ditu’)



diferentes lenguas

Kategoria bertsuko adibide gehiago:

- *Hainbat* hedabidetan azaldu zen albistea.
 - #Hedabide desberdinetan azaldu zen albistea.
- Bazekien musika-tresna *bat baino gehiago* jotzen, hala nola dultzaina, gitarra eta biolina.
 - #Bazekien musika-tresna desberdinak jotzen, hala nola dultzaina, gitarra eta biolina.
- Betidanik kontsumitu izan dira kultura guztietan *era bateko edo besteko* substantzia psikoaktiboak.
 - #Betidanik kontsumitu izan dira kultura guztietan substantzia psikoaktibo desberdinak.



las diferentes lenguas de Francia

Kategoria bertsuko adibide gehiago:

- Ikertzaile-talde *bakoitzak* erantzun desberdinak emango ditu.
 - #Ikertzaile-talde desberdinak erantzun desberdinak emango dituzte.
- Ikertzaile-talde *guztiak* ondorio bera atera dute.
 - #Ikertzaile-talde desberdinek ondorio bera atera dute.
- Erreparatu, halaber, DNaren harizpi biak irudikatzeko erabili diren *bi berde-tonuei*.
 - #Erreparatu, halaber, DNaren harizpi biak irudikatzeko erabili diren bi berde-tonu desberdinei.
- *Bi modutan* adieraz daitezke formulok.
 - #Bi modu ezberdinetan adieraz daitezke formulok.

